


Makalu, Ezagutu nahi ez den espedizioa

Xabier Erro



Gezurra badirudi ere, espedizioak iraun duen bi hilabete eta erdi luze hauek igaro ondoren, Euskadin nago berriro ere, eta itzuli guztietan bezala galderak eta galderak alde guztietatik. Gogorrak dira lehenengo egun hauek udaberriko Bidasoaren inguru atsegina, bizitasun eta kolore ugaritako uneak eta bestalde milaka aldiz gauza bera adierazi beharra, «...eta zergatik ez zenuen igo?» «Zer da Makalu?» «Baimenen bat eskatu al duzue?» e.a. Dirudi jendeak galdetu beharra duela eta noski «ongi geratu behar».

San Martin kaleko taberna batetan sartu naiz bazkaldu ondoren kafea hartzeko asmoz eta hantxe aurkitu dut lagun bat «Hombre, Xabier, zorionak, ondo aurkitzen haizela ikusten diat, Zer hartu behar duk?» eta beste ezer, ez futbolari buruz ari ziren eta besterik gabe jarraitu genuen, galderarik gabe eta kontu eskaerarik gabe, oraindik ere ba dago konturik eskatzen ez duen jendea, eskerrikasko, Joxe Mari!

ELURZULO BATETAN

«Gaua 6.550 metrotan pasatu dugu, gela gainean eta elurra ari zuelarik baina egunsenti garbia dugu, zazpirak dira, berehala irtengo da eguzkia eta berarekin berotasun pixkabat ere. Elur sakonean bidea irekiaz

noa pauso bat eman aurretik, zihur jakin behar da, ez zoazela arraildura baten gainera, guztiak estaliak bait daude. Rimaya batera gerturatzen naiz eta Broummm! erlaiza ireki da, atzetik ohiuak «Kontuz!» atzeruntz botatzen naiz eta abalantxa honek behintzat ez nau harrapatu... goruntz jarraitzen dugu.

«Tubo» deritzona eskalatzen dugu, 200 metro-tako desnibela duen Couloirra dugu, hain zuzen ere oso arriskutsua. Jela dago eta honen gainean ondo erantsi gabeko elur geruza. Aurreko espedizioek utzitako soka finkoak bost bat metroz besterik ez dira ageri, lurperaturik daude.

Pixkanaka goruntz goaz eta 7.000 metro-tako eta arrailadura baten ondoan uzten ditugu gure motxilak, pareta okerregia denez ez gara ausartzen han denda jartzen, gainera abalantxa arriskua ere bazegoen. Beraz kobazulotxo bat han bertan egitea erabakitzen dugu, hirurretan hasi eta arratsaldeko zazpurretan badugu jadanik, gaua igarotzeko lekua, laurok sartzen gara erdi kukubilkatuak, erdi etzanda. Zulo honetan lo egiteak ere baditu bere abantailak, denda baino beroagoa da eta ez dago kanpora irten beharrik urtzeko elurbila. Gaur apirilaren 29 dugu.»

Datu hauek hartutako hurrengo egunean 7.400 metro-tako Makalu-Lako, lepararaino irtisten den pareta eskalatu genuen, arratsal-

dez eta haize erauntsi gogor batekin iritsi ginen apirilaren 30-ean eta Maiatzaren 1-an ez ginen hemendik mugituko, eguraldia ez bait zegoen txantxetarako, Makaluko gailurra egiteko falta zitzaizkigun 1.000 metroak ezinezkoak zitzaizkigun.

AZKEN AUKERA

Maiatzaren 2-an erabaki genuen onena behe-kanpamendura jaistea izango zela, baina otaindik ere indarra badugunez, Kike, Mari eta ni Makalu II edo Kangchuntseruntz abiatzen gara, ordu bata inguruan iristen gara 7.640 metro-tara, Zazpi egunez goruntz eta Alpino eran lortu genuen 7.600 metro baino gehiagoko gailur bat, inolako lagun-tzarik gabe ez sherpa, ez kanpo, ez soka finko, Alpino erarik garbienean.

Lau egun geroago iritsiko ginen behe-kanpamendura, eta Makalu I-eruntz bigarren saio bat egin beharra zegoen, Mari eta Kike ziren egokienak, saio arin eta bizkor bat behar zuen izan, eguraldi ona aprobetxatuz eta horrela behe-kanpamendutik irtetzen dira (5.400 m.) maiatzaren 11-an, egun berean 6.000 metrotan lo egiten dute eta maiatzaren 14-ean dagoeneko Makalu-Lan dau-de 7.400 metrotan eta Maiatzaren 15-ean 7.700 metroak lortzen dituzte eta ia lorik

Cima Kangchuntse (7.640 m.).



URAREN ZARATA

Hau da nere notatxoetan egertzen dena: «Kathmandura noa telefonoz lehenbaitlehen hitz egitera gelditu gabe, gauerako, porteadoreen hiru egun eta erdi egina dut. Errekan sartzen naiz, Neveroen ondoan halere ez dut hotzik sentitzen, buruz behera sartu ere! Hau poza eta egon ezina! zuhaitz artean eta uraren zarata! nahi adina ur! elurre urtu beharrik ez!, rododendro artean sekulako atsedenaldua egiten dut ilunabarrean, gero artzain txabola batetan sartu, sua piztu eta sardina eta patata egosi batzu prestatzen ditu.

Pozik nago glaziare, seracs eta arraildurak atzean uzteaz, egun osoa nere ski bastoaz paseatzen, piolet eta bota bikoitzen beharrik gabe, eta buruan oraindik azken asteetako burutapen berbera. Leku honek *Nee* du izena, zoragarria da, Nepalen ikusi dudan politena, egunen batetan itzuliko naiz, lauretan jeiki, zerua oskarbi, mendien edertasuna bera ere ikusten hasten da eta etenik gabeko ur hotsa, Makaluko haize gogorraren ordainez. Hau da bizia hau! Bekokian daramadan argia bukatzen ari zait, gero arte.»



Al fondo el Makalu, en la cima del Chago (6.170 m.).

ETA GURE ETB?

Maiatzaren 24-ean Kathmandun nago, berriak bidaltzen ditut, telefonoz hitz egiten dut eta itzulerako konponketak egiten hasten naiz, baina ez dut lekurik aurkituko maiatzaren 29, arte.

Garai honetan Kathmandun ez dago turista askorik, gehienak expeditioetako jendea da. Afal ondoren garagardo batzu hartzera joaten nintzen KC-S edo DoonBarrera eta han Makaluko bi ingles expeditioariekin eta Kangchen-jungako expeditioiako bi Neozelandarrekin egoten, halako batetan, 6.809 metrotako Kantega egin duten sei Kataluniar emakumeekin aurkitzen gara Espainiako emakumeen arteko lehen expeditioa, sarritan gonbidatzen gintuzten zirudienez ez zuten diru arazo handirik (Lecturas, Espainiako famatu bezain «kulturala» den aldizkariak 1.500.000 pts. eman omen zien)?, neri lo egitea 20rupia (140 pzt.) kostatzen zitzaizdan hauei berriz 20 dolar (3.000 pzt.). Bestalde kataluniar telebista mendira joana zen hauei erreportaia bat egitera, helikoptero bat alokatu eta 2.000.000 lan horretan gastatu ere, eta hemen dugu berriz, gure ETB txintik ere esan gabe gure expeditioari buruz.

egin gage maiatzaren 16-ko goizeko ordu-batetan abiatzen dira goruntz eta arratsaldeko lauretan apur bat nekaturik noski lortuko zuten gailurra, helburua lortu zuten.

Maiatzaren 18-an Makalu-Lako soketatik jeisten ikusi nituen arin eta ongi zetozen, maiatzaren 19-an elkartu ginen Cago glaziarraren morrenetan, zirrara, besarkadak, malkoak... Euskadik badu dagoeneko, lau-

garren zortzimilakoa. Berri ona ezta!, eta maiatzaren 21-ean Kike eta Mari, porteadore edo karga eramanleen zai geratzen ziren bitartean, beheruntz abiatzen naiz, lehenbaitlehen bidali nahi dugu berri hau Euskadira.

Gure etxeetan ez dute aspaldiko berririk, eta beheruntz hiru egunetan soilik egiten dut, igotzerakoan 15-ean egin genuena.

IXIL IXILEAN

Beno, eta hau bukatzera doa, itzulitakoan Egin irakurtzen dut, Gaur maiatzak 31-an mendiko alorrean zera aurkitzen dut «Makalu o la escalada que nuncia existió»... ia inori jakitera eman ez zaion expeditioa oso pobrea, babestaile handirik gabe, azken momentuan Balandre etxeak emandako lo egiteko zaku arin batzu, arinak inoiz hobeto esanda, sekula baino hotz gehiago pasatu dugu.

Estatu mailako informabide guztiek boikoteatu duten expeditio bat, alegia eta egia esan ohituta gaude honelako gauzetara, baina oraindik ez gaude ohituta Euskadik izan duen axolagabetasun honetara (salbuespen aipagarriak ere badira noski).

Apirilaren 24-ean bidali nuen telex bat Kathmandutik ETB-ra. Beno, ba oraindik ez

dute ezer aipatu, Txema Urrutiari esker jakin izan ahal da zerbait hemen, eta, Jaun-Andreok, jakin ezazue, Makalu 1984-ko udaberriko euskal expeditioak bere helburua lortu duela bere partaidetako bik gailurra lortuaz (% 50), maiatzaren 16-ean arratsaldeko lauretan, alpino erarik garbienean, laguntzailerik gabe, oxigenorik gabe, sherpa gabe, oso expeditio arina 4 partaide: sukaldari bat, ringing-Sherpa, Kitchen Boy bat eta *amerikar gorron bat* zein hilabete osoz gure janariaz bazkatzen aritu bait zen eta azkenik alde egitean ere dirua eman behar izan genion «Mixiolari gisa ibiltzen gara».

JARRAITUKO DUGU

Ba, bai, bai, bai, ikurrina Makaluko gailurrean egona da eta orain baino lehenago

Dhaulagiri, Everest eta Nanga Parbat-en eta nahiz eta informabideei ez gehiegi axola gure kirol honek (dirurik ez bait du mugitzen), asko gara asteburuetan eta oporretan motxilak hartu eta mendiruntz abiatzen garrenak egun batzu bizitzera, eta asko gara baita antzeko gauzen jakin mina dugunok eta Futbol edo hainbeste gauzetako aurrez fabrikatutako figurin horiei baino garrantzi gehiago ematen diogunak... eta hau ez da hemen bukatzen, euskaldunek mendira igotzen jarraituko dugu, eta ahal den neurrian expeditioetan irtetzen beraz gure ikurrina berehala bostgarren zortzimilakora igoko delakoan agurtzen zaituztet.

Eta azkenik faltatzen zitzaiguna: Espainiako Gobernuko Lehendakari den Felipe Gonzalezek berak ere, Mari Abregori bidalitako telegrama batez zoriondu gaituela, **hau akabukoa da!**



Makalu (Pilar Oeste).



*Mari Abego,
en la cima del Makalu,
el 16 de mayo de 1984.*